

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

OÑATIKO UDALA

Dirulagutzen 2022ko deialdia. Etxebizitza partikurretan su-detektagailuak jartzeko udal-laguntza. BDNS (Identif.): 607042.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/607042>).

Dirulagutzen 2022ko deialdia. Etxebizitza partikurretan su-detektagailuak jartzeko udal-laguntza.

Oñatiko Udalak, 2022ko uztailaren 22ko osoko bilkuran, etxe partikularretan su-detektagailuak instalatzeko oinarri arautzaileak onartu zituen, eta 2012ko martxoaren 28ko osoko bilkuran oinarrien aldaketa onartu zuen.

Ordenantza eta ordenantzari egindako aldaketak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ziren, 144 eta 67 zenbakietan, 2010eko uztailaren 30ean eta 2012ko apirilaren 10ean, hurrenez hurren.

Onartutako Ordenantzak dio Udalak urtero onartuko duela ekitaldi bakoitzean zein adin tartekoentzat izango den laguntza.

Alkate Dekretu bidez erabaki zen (2022ko urtarrilaren 19koa, 32. zk.) 2022rako laguntzen deialdia egitea:

ERABAKI DU

Onartzea aipatutako dirulaguntzen 2020ko deialdia.

Finantziazioa, 2022ko aurrekontuetako 1.0500.683.231.00.02 2022(1934) diru-partidaren kargura, 5.100 eurokoa.

2022ko eskaerak aurkezteko lekua eta epea.

Interesdunek edo haien ordezkariak udaletxeko Herritarren Arretarako Zerbitzuan (HAZ) aurkeztuko dituzte eskabideak, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik 2022ko azaroaren 30era arte.

2022ko ekitaldian, su-detektagailuak instalatzeko laguntza eskatu ahal izango dute honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak:

Aurten 80 urte betetzen dituzten pertsonak, eta etxean bakarrik edo 80 urte beteta dituzten beste pertsona batzuekin batera bizi direnak.

Aurreko baldintza bete ez arren, mendekotasuna, isolamendua edo ageriko arriskua duten pertsonak, baldin eta Udaleko Gizarte Ongizateko Batzordeak baliabidea egokitzat jotzen badu. Horretarako, behar hori frogatzeko behar diren balorazioak eta txostenak eskatuko dira.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari.

AYUNTAMIENTO DE OÑATI

Convocatoria de subvenciones 2022. Ayuda municipal para la instalación de detectores de fuego en domicilios particulares. BDNS (Identif.): 607042.

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/607042>).

Convocatoria de subvenciones 2022. Ayuda municipal para la instalación de detectores de fuego en domicilios particulares.

El Ayuntamiento de Oñati, en sesión Plenaria de fecha 22 de julio de 2010, aprobó las bases reguladoras para la instalación de los detectores de fuego en domicilios particulares, habiéndose modificado la misma en sesión Plenaria del 28 de marzo de 2012.

Siendo publicada la ordenanza y la modificación de la misma en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 144 y 67 de fecha 30 de julio de 2010 y 10 de abril de 2012 respectivamente.

En la mencionada ordenanza específica que el Ayuntamiento acordará para cada ejercicio la franja de edad de los beneficiarios de dichas ayudas.

Por ello, se acordó por Decreto de Alcaldía n.º 32 de 19 de enero de 2022 realizar la siguiente convocatoria de ayudas para el año 2022:

ACUERDA

Aprobar la convocatoria de 2022 de las citadas subvenciones.

Financiación con cargo a la partida presupuestaria 1.0500.683.231.00.02 2022(1934), por importe de 5.100 euros.

Lugar y plazo de presentación de solicitudes en el año 2022.

Las solicitudes serán presentadas por las personas interesadas, o sus representantes, en las oficinas de Atención al ciudadano (SAC) el Ayuntamiento desde el día siguiente a la publicación del anuncio hasta el 30 de noviembre de 2022.

Durante el ejercicio 2022 podrán optar a la ayuda para la instalación de los detectores de fuego las personas que cumplan las siguientes condiciones:

Las personas que cumplan 80 años en el presente ejercicio y que residan solas en el domicilio o en compañía de otras personas que tengan 80 años cumplidos.

Personas que por razón de dependencia, aislamiento o riesgo evidente, aun no cumpliendo el requisito anterior, se valore adecuado el recurso por la Comisión de Bienestar social municipal, para lo que se requerirán las valoraciones e informes necesarios para demostrar dicha necesidad.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa.

Interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete haren aurka Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, partikularrek, aldez aurretik, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Gobernu Batzordeari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Kasu horretan, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoarik jarri, harik eta berraztertze-errekurtsoa berariaz ebatzi arte edo ustezko ezespina gertatu arte. Hori guztia, egokitzat jotzen den beste edozein errekurtso jartzearen kalterik gabe.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Oñati, 2022ko urtarrilaren 21a.—Izaro Elorza Arregi, alkatea.
(380)

Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él Recurso Contencioso-Administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer Recurso Potestativo de Reposición ante la Junta de Gobierno, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para general conocimiento.

Oñati, a 21 de enero de 2022.—La alcaldesa, Izaro Elorza Arregui.
(380)